1. Las subvenciones forales se irán adjudicando entre las distintas solicitudes en orden de puntuación, hasta agotar el límite fijado en la convocatoria dentro del crédito disponible, de acuerdo con lo dispuesto por el artículo 4 «Criterios de valoración», del presente Decreto Foral.

2. No se prevé en esta convocatoria, a efectos de lo dispuesto por el artículo 22.4 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, la resolución, en primer lugar,

cve: BAO-BOB-2010a050

samen baten bidez ebaztea eta gero interesdunei entzunaldiaren tramitea egitea, prozeduran erakunde interesdunek azaldutako egitateak, alegazioak eta frogak baino ez direlako egongo eta horiek baino ez direlako kontuan hartuko.

Deialdia ebatzi baino lehen, eskatzaileek zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak egunean dituztela egiaztatuko du Kirol Zerbitzuak. Horren egiaztapena egin ondoren, eskatzaileren batek betebehar horietako edozein ez duela betetzen ikusten bada, agindeia egingo zaio hamar (10) eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, hori egiten ez badu bere eskabidean atzera egindakotzat joko dela ohartaraziz.

3. Eskabideak Kulturako foru diputatu andre txit argiak ebatziko ditu dagokion foru agindu bidez eta epaimahaiaren ebazpenproposamena ikusita. Horretarako epea hiru (3) hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Deialdi hau ebazteko ematen den foru agindua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, gehienez ere ebazpena ematen denetik hilabetera (1). Argitaratu ostean, gainera, jakinarazpena egingo zaie foru diru-laguntza horien deialdirako eskabidea aurkeztu duten erakunde interesdunei, posta ziurtatuen bidez. Jakinarazpen horrek beren-beregi jasoko du ebazpenak amaiera ematen diola administrazio-bideari, eta interesdunak bi (2) hilabeteko epea duela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Epe hori bukatu ondoren, eskabideari buruzko berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada, eskabide hori ukatutzat joko da; baina baliteke geroago ebazpena ematea.

4. Bateragarri izango da beste administrazio batzuek edota erakunde publiko zein pribatuek, direla estatukoak nahiz nazioartekoak, helburu berbererako emandako bestelako diru-laguntzekin.

5. Foru dekretu honetan arautu diren diru-laguntzen zenbatekoa ezingo da inoiz izan, ez bera bakarrik, ezta beste diru-laguntza edo laguntza batzuekin batuta, erakunde eskatzaileak egingo duen jardueraren kostua baino handiagoa.

6. Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzen edozein aldaketak, eta edozein kasutan, aldi berean beste administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen batek emandako beste dirulaguntza edo laguntzaren bat lortzeak, garatuko den jardueraren kostua gainditzea dakarrenean, emakidari buruzko ebazpena aldatzea ekar dezake.

**7. artikulua.—*Erakunde onuradunek egin beharreko publizitatea***

Foru diru-laguntza bat jasotzen duten erakundeek ondo ikusteko leku bat, behar bezala nabarmenduta, gorde beharko dute inbertsioaren xede den eraikinean, Bizkaiko Foru Aldundiak bertan publizitatea jar dezan, Bizkaiko Lurralde Historikoko aurrekontuen kargura.

**8. artikulua.—*Ordainketa***

1. Erakunde onuradunak instalazioa berregin, berritu edo berrerabiltzeko lanen adjudikazioaren kopia aurkeztu ondoren, edo egindako jarduerak eta sortutako gastuak justifikatzeko kontua (dagozkion fakturen kopia egiaztatua barne) aurkeztu ondoren, Kirol Zerbitzuak diru-laguntza ordaintzeko izapideak egingo ditu. Dokumentazio hori 2010eko urriaren 2a baino lehen aurkeztu behar da Kirol Zerbitzuko bulegoetan.

Ordainketa egiteko eskatzen diren dokumentuen izaera eta dirulaguntzen hartzekodunen izaera dela bide, entitate onuradunei ez zaie ordainketa tramitatzeko inolako bermerik eskatuko.

2. Aurreko paragrafoan adierazitako dokumentazioa aurkezten ez bada, erakundeak emandako diru-laguntzari uko egiten diola ulertuko da. Beraz, diru-laguntza hori 4.4 artikuluan adierazten den ordezko proiektuari emango zaio, dagokion ebazpena eman ondoren.

a través de una propuesta de resolución provisional tras la que se concederá tramite de audiencia a las personas interesadas, puesto que no figurarán en el procedimiento ni serán tenidos en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por las entidades interesadas.

Previo a la resolución de la convocatoria, el Servicio de Deportes comprobará que los solicitantes se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y para con la seguridad social. Si como consecuencia de tal comprobación resultare que alguien incumple cualquiera de tales obligaciones, será requerido para que en el plazo de diez (10) días regularice tal situación con advertencia de que, en otro caso, su solicitud será dada por desistida.

3. Las solicitudes serán resueltas por la Ilma. Sra. diputada foral de Cultura a través de la correspondiente Orden Foral, a la vista de la propuesta de resolución del Tribunal, en el plazo de tres (3) meses, que se contará desde el día siguiente al de la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

La Orden Foral por la que se resuelva la presente convocatoria será publicada en el «Boletín Oficial de Bizkaia» en el plazo máximo de un (1) mes desde su adopción, siendo, una vez publicada, notificada por correo certificado a las entidades interesadas que hayan presentado su solicitud a los efectos de la presente convocatoria pública. Contendrá expresa mención a que la misma agota la vía administrativa, pudiendo interponerse contra ella recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos (2) meses contados desde el día siguiente al de notificación de esta resolución.

En el caso de que transcurrido dicho plazo no conste resolución expresa de la solicitud, se entenderá que la misma ha sido denegada, sin perjuicio de que con posterioridad sea resuelta de forma expresa.

4. Es compatible la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas otorgadas por otras Administraciones o Entes Públicos o Privados para la misma finalidad.

5. El importe de las subvenciones reguladas en el presente Decreto Foral, en ningún caso podrá ser de tal cuantía que aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas, supere el coste de la actividad a desarrollar por la entidad solicitante.

6. Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y, en todo caso, la obtención concurrente de subvenciones y ayudas otorgadas por otras Administraciones o Entes Públicos o Privados que suponga superar el coste de la actividad a desarrollar podrá dar lugar a la modificación de la resolución de la concesión.

**Artículo 7.—*Publicidad a realizar por las entidades beneficiarias***

Las entidades beneficiarias de la subvención foral deberán reservar un espacio destacado, visible y con suficiente notoriedad en el edificio objeto de la inversión, para que la Diputación Foral de Bizkaia, con cargo a los presupuestos del Territorio Histórico de Bizkaia, pueda colocar publicidad en el mismo.

**Artículo 8.—*Pago***

1. El Servicio de Deportes procederá a tramitar el abono de la subvención tras la presentación por parte de la entidad beneficiaria de la copia de la adjudicación de los trabajos de reforma, renovación o reutilización; o cuenta justificativa de las actuaciones y gastos devengados, incluyendo copia cumpulsada de las facturas correspondientes. Dicha documentación deberá presentarse en las oficinas del Servicio de Deportes antes del 2 de octubre de 2010.

Dada la naturaleza de los documentos exigidos para el abono y el carácter de los sujetos perceptores de las subvenciones, no se exigirá garantía alguna a las entidades beneficiarias para la tramitación del abono.

2. La no presentación en plazo de la documentación señalada en el anterior punto significará la renuncia tácita a la subvención concedida por parte de la correspondiente entidad. Dicha subvención será en ese caso destinada al proyecto suplente que se señala en el artículo 4.4, previa la correspondiente resolución.

cve: BAO-BOB-2010a050

Betebeharra aitortu eta diru-laguntza ordaindu baino lehen, egiaztatuko da onuradunek zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituzten, baita itzultzeko prozedurari buruzko ebazpen bidez zordunak diren ere.

3. Eginiko egiaztapenaren ondorioz, erakunde onuradunetariko batek betebehar horietako edozein ez duela betetzen ikusten bada, agindeia egingo zaio hamar (10) eguneko epearen barruan egoera hori erregulariza dezan eta, hori egiten ez badu, onartutako diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdu egingo duela ohartaraziko zaio.

### 9. artikulua.—*Betebeharrak*

Foru dekretu honen bitartez araututako diru-laguntzen onuradunek honako konpromiso hauek bete beharko dituzte:

a) Jarduera egitea.

b) Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailaren aurrean jarduera gauzatu dela, bere emakida egiteko oinarri izan ziren baldintzak bete direla, eta diru-laguntza jaso duen proiektuari dagokion gastuaren aplikazioa egin dela justifikatzea. Horretarako ekitaldian emandako obra-ziurtagiriak edo fakturak aurkeztu beharko dituzte Kirol Zerbitzuaren bulegoetan. Faktura horiekin batera, udaletxeko Idazkaritzaren edo Kontu-hartzailetzaren egiaztagiri bat aurkeztu beharko da, gastu hori diru-laguntza honen xede den jardueran erabili dela egiaztatzeko. Justifikatzeko epea 2011ko otsailaren 1ean amaituko da.

c) Obrak burutzeari buruzko azken txostena aurkeztea, dagozkion obra-ziurtagiriekin edo fakturekin batera. Horretarako, hilabeteko (1) epea izango dute, lanak egiteko kontratuan obra amaitzeko aurrez ikusitako egunetik aurrera zenbatuta (gerta litezkeen luzapenak barne). Faktura horiekin batera, udaletxeko Idazkaritzaren edo Kontu-hartzailetzaren egiaztagiri bat aurkeztu beharko da, gastu hori diru-laguntza honen xede den jardueran erabili dela egiaztatzeko. Gutxienez, ebaluazioa egin eta foru diru-laguntza emateko kontuan hartu den inbertsioaren aurrekontua justifikatu beharko da.

d) Estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko batetik helburu bererako beste diru-laguntzaren bat lortu bada, horren berri ematea diru-laguntza ematen duen erakundeari.

e) Kulturako Foru Sailari laguntza ematea, hala eskatzen bazaie, eta egin beharreko proiektuaren gaineko edozein informazio ematea.

f) Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan xedatutako gainerakoak.

g) Era berean, erakunde onuradunak konpromisoa hartuko du Bizkaiko Foru Aldundiaren Eskola Kirola programaren barruan sartutako jarduerei lehentasuna emateko, diru-laguntza jasoko duen instalazioa erabiltzeko ordutegiari eta aukerari dagokienez.

### 10. artikulua.—*Diru-laguntza itzultzea*

1. Aurreko artikuluan edo Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 33. artikuluan jasotako betebeharren arteko bat edo batzuk betetzen ez direnean, erakunde onuradunek jasotako diru-laguntza eta berari dagozkion berandutza korrituak itzuli beharko dituzte. Besteak beste, honakorik gertatzen bada:

a) Frogatzeko betebeharra betetzen ez bada.

Diru-laguntza justifikatzen ez bada edo foru dekretu honetan ezarritakoaren arabera nahiko edo behar bezala justifikatzen ez bada, eman eta justifikatu gabeko diru-laguntzaren zatia itzuli beharko da, horretarako Bizkaiko Foru Aldundiko Kirolen Zuzendaritza Nagusiak eskaera egin ondoren.

b) Diru-laguntzaren helburua bete ez bada.

c) Diru-laguntza eskatutako baldintzak bete gabe lortu bada.

d) Erakunde onuradunak diru-laguntza ezarritako helbururako erabiltzen ez badu, emandako diru-kopurua itzuli beharko du, horre-

Previo al reconocimiento de la obligación y al pago de la subvención, se comprobará que los/as beneficiarios/as se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social o sea deudora por resolución de procedencia de reintegro.

3. Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que alguna/a beneficiario/a incumple cualquiera de tales obligaciones, éste/a será requerido/a para que en el plazo de diez (10) días regularice tal situación con la advertencia de que, en caso contrario, perdería el derecho a la subvención concedida.

### Artículo 9.—*Obligaciones*

Las entidades beneficiarias de las subvenciones reguladas por el presente Decreto Foral se comprometen a:

a) Realizar la actividad.

b) Justificar ante el Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia la realización del proyecto, el cumplimiento de las condiciones que fundamentaron su concesión y la aplicación del gasto del importe del proyecto subvencionado, mediante la presentación en las oficinas del Servicio de Deportes de las certificaciones de obra o facturas emitidas en el ejercicio. Dichas facturas deberán acompañarse de una certificación de la Secretaría o Intervención Municipal que acredite que el gasto que comportan se ha dedicado a la actividad objeto de la presente subvención. El plazo para la justificación expirará el 1 de febrero del año 2011.

c) Presentar, en el plazo de un (1) mes a partir de la fecha de finalización prevista en el contrato de ejecución de los trabajos, con sus posibles prórrogas, una memoria final relativa a la ejecución de las mismas, con las correspondientes certificaciones de obra o facturas. Dichas facturas deberán acompañarse de una certificación de la Secretaría o Intervención Municipal que acredite que el gasto que comportan se ha dedicado a la actividad objeto de la presente subvención. Dicha justificación deberá ser por, al menos, la totalidad del presupuesto de la inversión que se ha tenido en cuenta para la valoración y concesión de la subvención foral.

d) Comunicar a la entidad concedente la obtención de otra u otras subvenciones para la misma finalidad procedentes de otra administración o ente público estatal o internacional.

e) Colaborar con el Departamento Foral de Cultura en aquellos supuestos que le sea requerido, aportando cualquier tipo de información relativa al proyecto a ejecutar.

f) Las demás previstas en el Art. 13 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

g) Asimismo, la Entidad beneficiaria se comprometerá a conceder preferencia a las actividades encuadradas en el Programa de Deporte Escolar de la Diputación Foral de Bizkaia, en lo referente a horarios y disponibilidad de la instalación objeto de subvención.

### Artículo 10.—*Reintegro*

1. Procederá el reintegro, de la subvención recibida y los intereses de demora correspondientes, por parte de las entidades beneficiarias, cuando se incumplan alguna o algunas de las obligaciones establecidas en el articulo anterior o de los previstos en el articulo 33 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, entre otros:

a) Incumplir la obligación de justificación.

La no justificación y la justificación insuficiente o deficiente en los términos establecidos en el presente Decreto Foral conllevará la obligación de reintegro de la parte de la subvención concedida y no justificada, previo requerimiento por parte de la Dirección General de Deportes de la Diputación Foral de Bizkaia.

b) Incumplir la finalidad para la que la subvención fue concedida.

c) Obtener la subvención sin reunir las condiciones requeridas para ello.

d) La no disposición por parte de la Entidad beneficiaria de la subvención para el fin establecido conllevará la obligación de rein-

cve: BAO-BOB-2010a050

tarako Bizkaiko Foru Aldundiko Kirolen Zuzendaritza Nagusiak eskaera egin ondoren.

Erakunde onuradunak ezarritako helbururako diru-laguntzaren zati bat bakarrik erabiltzen badu, helbururako erabili ez duen zatiari dagokion diru-kopurua itzuli beharko du, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirolen Zuzendaritza Nagusiak horretarako eskaera egin ondoren.

Proiektua egiteko epea betetzen ez badu, erakunde onuradunak jasotako diru-kopurua itzuli beharko du, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirolen Zuzendaritza Nagusiak horretarako eskaera egin ondoren.

e) Foru dekretu honetan ezarritako gainerako kasuak betetzen ez badira.

2. Lortu den finantziazioa diruz lagundutako jarduueraren kostua baino handiagoa izatea diru-laguntza itzultzeko beste arrazoi bat da.

**11. artikulua.—*Zehapen araubidea***

Erakunde onuradunak Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra ezarri zuen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko IV. tituluko I. kapituluan jasotako egite edo ez-egiteetako bat eginez gero, edozein, zehapen prozedura hasiko da, titulu horretako II. kapitulua betez, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko IX. tituluko II. kapituluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

**12. artikulua.—*Aplikatu beharreko araudia***

Foru dekretu honetan jasota ez dagoenerako, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua ezarriko da, eta, osagarri modura, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea eta beraren izaeragatik ezargarria izan daitekeen bestelako araubidezko edozein xedapen.

**13. artikulua.—*Aurrekontuko partida***

Deialdi honetako diru-laguntzak emateko aurrekontuko muga seiehun mila euro izango da (600.000 euro). Diru-kopuru hori 2010. urtean indarrean dagoen aurrekontuko 732.99 partidaren kontura (2007/0144 proiektua, 450.206 «Udal Kirola» gastu egitaraua, 04.03 organikoa) ordainduko da.

Eskabide guztiak ebatzi ondoren aurrekontuko gehieneko mugara helduko ez balitz, gastu-baimenaren ezeztapena tramitatuko litzateke, soberan den zenbatekoan.

AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa**

Kultura Saileko foru diputatu andre txit argiari ahalmena eman zaio foru dekretu honetan xedatutakoa betearazteko beharrezko xedapen guztiak eman ditzan.

**Bigarrena**

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2010eko martxoaren 9an .

Kulturako foru diputatua,
MIREN JOSUNE ARIZTONDO AKARREGI

Ahaldun Nagusia,
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN

tegro de la cantidad concedida, previo requerimiento por parte de la Dirección General de Deportes de la Diputación Foral de Bizkaia.

La disposición tan sólo parcial por parte de la Entidad beneficiaria de la subvención para el fin establecido conllevará la obligación de reintegro de la cantidad correspondiente a la parte no dispuesta, previo requerimiento por parte de la Dirección General de Deportes de la Diputación Foral de Bizkaia.

El incumplimiento del plazo de ejecución del proyecto conllevará la obligación de reintegro de la cantidad percibida, previo requerimiento por parte de la Dirección General de Deportes de la Diputación Foral de Bizkaia.

e) Incumplir los demás supuestos previstos en el presente Decreto Foral.

2. El exceso de financiación en relación al coste de la actividad subvencionada también constituirá motivo de reintegro.

**Artículo 11.—*Régimen sancionador***

La comisión por la entidad beneficiaria de cualquiera de las acciones u omisiones contenidas por el capítulo I del título IV de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, dará lugar a la apertura de un procedimiento sancionador de conformidad con el capítulo II del mismo título, a tenor de lo dispuesto en el capítulo II del título IX de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

**Artículo 12.—*Normativa aplicable***

Para todos aquellos aspectos no previstos en el presente Decreto Foral, serán aplicables la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y supletoriamente la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común y cualquier otra disposición normativa que por su naturaleza pudiera resultar de aplicación.

**Artículo 13.—*Partida presupuestaria***

El límite presupuestario establecido para la concesión de las ayudas de la presente convocatoria vendrá determinado por la cantidad de seiscientos mil euros (600.000 euros) cuyo abono se imputará a la partida presupuestaria 732.99, proyecto 2007/0144, programa de gasto 450.206 «Deporte Municipal», orgánico 04.03. del presupuesto vigente en el año 2.010.

Si una vez resueltas todas las solicitudes no se alcanzara el límite presupuestario máximo, se procederá a tramitar la anulación de la autorización de gasto por el importe sobrante.

DISPOSICIONES FINALES

**Primera**

Se faculta a la diputada foral de Cultura para dictar cuantas disposiciones resulten necesarias para la ejecución de lo dispuesto en el presente Decreto Foral.

**Segunda**

El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Bilbao, a 9 de marzo de 2010.

La diputada foral de Cultura,
MIREN JOSUNE ARIZTONDO AKARREGI

El Diputado General,
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN

cve: BAO-BOB-2010a050

I. ERANSKINA / ANEXO I

**DIRU-LAGUNTZA ESKABIDEA / SOLICITUD DE SUBVENCIÓN**
**KIROL AZPIEGITURAK / INFRAESTRUCTURAS DEPORTIVAS**

Proiektua / Proyecto:____________________

Eskatzailea / Solicitante:____________________

a) ____________________ udalerriko Udala / Ayuntamiento del municipio de ____________________

b) ________-ko Udalaren Kirol Erakunde Autonomiaduna / Organismo Autónomo Municipal de Deportes de __________

Helbidea (kalea edo plaza) / Domicilio (calle o plaza): ____________________

Herria / Localidad: ____________________ P.K. / D.P.: ____________________

Telefonoa / Teléfono:____________________

E-mail: ____________________

**Inbertsioaren datuak / Datos de la inversión**

Mota / Tipo: ____________________

Aurrekontua / Presupuesto: ____________________

Ekintzaren hasiera urtea / Año de inicio de la actividad: ____________________

Ekintza egiteko epea / Plazo de ejecución de la actividad: ____________________

Lanaren deskripzioa / Descripción del trabajo: ____________________

Alkatearen edo Erakundeko buruaren sinadura
Firma del/a Alcalde/sa o presidente/a de la Entidad

cve: BAO-BOB-2010a050

II. ERANSKINA / ANEXO II

**ESKUALDEAK ETA UDALERRIAK / COMARCAS Y MUNICIPIOS**

**1. Busturialdea**

Ajangiz. Arratzu. Bermeo. Busturia. Ea. Elantxobe. Ereño. Errigoiti. Forua. Gautegiz-Arteaga. Gernika-Lumo. Ibarrangelu. Kortezubi. Mendata. Morga. Mundaka. Murueta. Muxika. Nabarniz. Sukarrieta.

**2. Uribekosta-Mungialdea**

Arrieta. Barrika. Bakio. Berango. Fruiz. Gamiz-Fika. Gatika. Getxo. Gorliz. Laukiz. Leioa. Lemoiz. Maruri-Jatabe. Meñaka. Mungia. Plentzia. Sopelana. Urduliz.

**3. Durangaldea**

Abadiño. Atxondo. Berriz. Durango. Elorrio. Ermua. Garai. Amorebieta-Etxano. Iurreta. Izurtza. Mallabia. Mañaria. Otxandio. Zaldibar.

**4. Enkarterriak**

Alonsotegi. Artzentales. Balmaseda. Galdames. Gordexola. Gueñes. Karrantza. Harana/Valle de Carranza. Lanestosa. Sopuerta. Trucios-Turtzioz. Zalla.

**5. Nerbioi-Ibaizabal**

Arakaldo. Arrankudiaga. Arrigorriaga. Basauri. Etxebarri. Galdakao. Urduña-Orduña. Orozko. Zaratamo. Zeberio. Ugao-Miraballes.

**6. Ezkerraldea**

Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena. Barakaldo. Muskiz. Ortuella. Portugalete. Santurtzi. Sestao. Valle de Trápaga-Trapagaran. Zierbena.

**7. Arratia**

Arantzazu. Areatza. Artea. Bedia. Dima. Igorre. Lemoa. Ubide. Zeanuri.

**8. Txorierri**

Derio. Erandio. Larrabetzu. Lezama. Loiu. Sondika. Zamudio.

**9. Lea-Artibai**

Amoroto. Aulesti. Berriatua. Etxebarria. Ispaster. Lekeitio. Markina-Xemein. Mendexa. Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz. Ondarroa. Ziortza-Bolibar. Gizaburuaga.

**10. Bilbo**

Bilbo.

**1. Busturialdea**

Ajangiz. Arratzu. Bermeo. Busturia. Ea. Elantxobe. Ereño. Errigoiti. Forua. Gautegiz-Arteaga. Gernika-Lumo. Ibarrangelu. Kortezubi. Mendata. Morga. Mundaka. Murueta. Muxika. Nabarniz. Sukarrieta.

**2. Uribekosta-Mungialdea**

Arrieta. Barrika. Bakio. Berango. Fruiz. Gamiz-Fika. Gatika. Getxo. Gorliz. Laukiz. Leioa. Lemoiz. Maruri-Jatabe. Meñaka. Mungia. Plentzia. Sopelana. Urduliz.

**3. Durangaldea**

Abadiño. Atxondo. Berriz. Durango. Elorrio. Ermua. Garai. Amorebieta-Etxano. Iurreta. Izurtza. Mallabia. Mañaria. Otxandio. Zaldibar.

**4. Enkarterriak**

Alonsotegi. Artzentales. Balmaseda. Galdames. Gordexola. Gueñes. Karrantza. Harana/Valle de Carranza. Lanestosa. Sopuerta. Trucios-Turtzioz. Zalla.

**5. Nerbioi-Ibaizabal**

Arakaldo. Arrankudiaga. Arrigorriaga. Basauri. Etxebarri. Galdakao. Urduña-Orduña. Orozko. Zaratamo. Zeberio. Ugao-Miraballes.

**6. Ezkerraldea**

Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena. Barakaldo. Muskiz. Ortuella. Portugalete. Santurtzi. Sestao. Valle de Trápaga-Trapagaran. Zierbena.

**7. Arratia**

Arantzazu. Areatza. Artea. Bedia. Dima. Igorre. Lemoa. Ubide. Zeanuri.

**8. Txorierri**

Derio. Erandio. Larrabetzu. Lezama. Loiu. Sondika. Zamudio.

**9. Lea-Artibai**

Amoroto. Aulesti. Berriatua. Etxebarria. Ispaster. Lekeitio. Markina-Xemein. Mendexa. Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz. Ondarroa. Ziortza-Bolibar. Gizaburuaga.

**10. Bilbo**

Bilbo.